



Aldarri ozenak kaleetan

Zenbait eragilek ekintzak egin dituzte Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Egunean. Indarkeria matxista kasuek gora egin dute herrian aurten / 2

TXINTXARRI

Erronkametroek, gora

Lasarte-Orian 1.496 'ahobizik' eta 609 'belarriprestak' izena eman dute Euskaraldian / 7

Atsotabarreko langileen, ostalarien eta Sahararen aldekoen protestak egun hauetan / 10

Nahia Zudaire igerilariarekin elkarrizketa eta herriko igerilarien lehiara itzulera / 12-13

BLACK FRIDAY

%20

ko **DESKONTUA**
produktu guztietan

+ MONTURA DOAN zure betaurreko graduatuetan

2020/11/30era arte baliogarria. Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

Aldarriak azaroaren 25ean



Okendo plazan egin dute elkarretaratzea. TXINTXARRI

Indarkeria matxistaren aurka Elkarretaratzea egin dute udal korporazioko kideek eta herritarrek Okendo plazan. Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak gogoratu dituzte, eta, kasuen igoera dela eta, kezka adierazi dute.



Atsobakar egoitzako egoiliarrek eta langileak. TXINTXARRI

'Elkartasun matxak' egitasmoarekin bat Atsobakar adinekoren egoitzako egoiliarrek hariarekin landutako lanak aurkeztu dituzte egoitzaren harreran. Bufanda hori Erribera kalean dagoenarekin lotu eta Astigarragako Harituz elkartera bidaliko dute.



Herritar ugariak parte hartu dute eskualde mailako mobilizazioan asteazken arratsaldean. TXINTXARRI

Sistema heteropatriarkal kapitalista "agortuari" hortzak erakusten Eskualde mailako mobilizazioa egin dute Buruntzaldeko neska* gazteek. Elkar zaintzearen garrantzia eta autodefentsa feminista aldarrikatu dituzte, eta Beterri-Buruntzako mugimendu feministak urratsak egiten jarraitzen duela azpimarratu. "Mendeetan zehar ukatu dizkiguten espazioak gure egiten jarraituko dugu eta, inoiz baino gehiago, antolatuta jarraituko dugu. Neska* gazteok ez dugu haien normaltasun berria onartuko". Ekintzarekin bat egin du herrian sortu berri duten Asunak talde feministak. Herrian ekintzak antolatu eta materiala elkarbanatzeko asmoa agertu du sare sozialetan.

Indarkeria matxista kasuek gora egin dute Lasarte-Orian

Azaroaren 25aren bueltan, 'Mi tercer acto' monologoa eskainiko du La Dinamika-Eguzki Zubiak kultur etxean

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, azaroaren 17ra arte Ertzaintzak 23 atestatu egin ditu indarkeria matxistarekin lotura duten kasuekin aurten. Hamabi salaketa aurkeztu dituzte emakume herritarrek eta 37 urruntze-agindu daude indarrean. Horietatik bederatzita 2020. urtean ezarri dizkiete erasotzaileei. Iazko datuekin alderatuta, gora egin dute kopuruek: zazpi atestatu,

hiru salaketa eta bederatzita urruntze-agindu gehiago indarrean aurten. Etxe barruan gertatzen diren indarkeria matxisten kasuen berri ere eman du udalak: 11 atestatu egin ditu Ertzaintzak; sei salaketa aurkeztu dira; bederatzita babes-agindu daude indarrean eta hiru 2020. urtean ezarri dira; eta etxeko indarkeriagatik 46 espediente zabalik daude. Ertzaintzak jasotako datuak dira horiek.

Bien bitartean, udalak azaroaren 25aren bueltan antolatutako ekintzak aurrera doaz. TXINTXARRI aldizkariak edizioa itxi duenean banatzeke zeuden aurtengo Beldur Barik lehiaketako sariak; 19:00etan egin dute ekitaldia Sexuen Elkarbizitzarako Emakumearen Zentroan, ostegun arratsaldean. Gaur, ostiralez, hilak 27, *Mi tercer acto* monologoa eskainiko du La Dinamika-Eguzki Zubiak kultur etxean, arratsaldeko zazpiketarik aurrera. Sarrerek 5,50 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan edo Interneten eros daitezke, ondoko helbide honetan: https://tickets.kutxabank.es/#/eu/detalle/ML3ACTO@Janto_KB/Lekuona.



ESKUTITZA LASARTE-MORIA

23 atestatu, hamabi salaketa eta 37 urruntze-agindu

Hau izan daitezke azaroaren 25eko titularra. Honek behar luke joan den ostiralean –2020ko azaroaren 18an– aldizkari honetan irakurri genuena ere. Hori edo baliabide publiko gehiago behar ditugula indarkeria matxistari aurre egiteko. Eskaera bat, aldarri bat, autokritika bat udal egituren aldetik, indarkeria matxistaren aurkako egunean: “Ez dira aski eskaintzen ditugun baliabideak”, “Zerbitzu publiko gehiago bortizkeriari aurre egiteko”... edo halakoren bat. Oso bestelakoa zen, ordea, Lasarte-Oriako udal ordezkariak Emakumeen Zentro Zibikoaren aurrean egindako argazki gainean idatzita ikusi genuena: “Ekimen ugari, genero indarkeriaren egunaren inguruan”, zioen izenburuak.

Esan gabe doa, aldizkari honentzako edo albistea idatzitako kazetariarentzako baino instituzioentzat dela gure oharra: egitasmoek –ekimenek– indarkeria matxista jasaten duten emakumeen edota haien seme-alaben errealitate gordina leunduko luketela dirudi. Jakina, egun honen harira antolatzen diren jardueren kontzientziazio lana egiten dute, baina inondik inora ere ez dute salaketa eta aldarria bermatzen. Are gutxiago instituzioek behar beste baliabide eskaintzea arazoari errotik heltzeko. Baina hel diezaiegun albistean agertzen diren beste gaiak.

Sarreran aipatzen da Izaskun eta Maite berdintasun teknikariak direla. Ez dugu ukatzen haien lana hori denik eta betetzen ez dutenik; ezin esan, ordea, herriko berdintasun-teknikariak direla. Hala izatekotan, Agustin Valdivia alkatea bera Lasarte-Oriako Udaleko beste arkitekto bat litzateke, eta ez da hala. Alegia: berdintasun-teknikariak udaleko atal guztietan eragin behar luke, zeharlerroan, eta ez Gizarte Zerbitzuak barneko txoko txiki batean. Berdintasun-teknikaria ez da “emakumeen arazoez arduratzen dena”, berdintasun-teknikariak gizarte zerbitzuetan, kulturean, jai arloan, euskaran, kirolean, hirigintzan... eragin beharko luke. Ezin da azpikontratutako langileez bete hutsunea. Mugimendu feminista aspaldidanik ari da eskatzen: berdintasun-teknikariak udal langilea izan behar du.

Eta segi dezagun aurrera: agertzen dira irudian langileak eta udal ordezkariak “kultur ekitaldien egitaraua” aurkezten. Ikusi nahiko genituzke ordezkari politikoak diru partida handiagoak hitzematen indarkeria matxista jasaten duten andreentzat, iragartzen Hiri Ordenantzaren Plan Orokorra jasoko duela genero ikuspegia, aintzat hartuko dela hori herriaren egituraketa berria. Gustora irakurriko genuke koronabirusaren pandemiak eragindako itxialdian haien erasotzaielekin bizi behar izan duten andreekiko aitortza bat. Alegia: nahiko genuke indarkeria matxistaren aurkako begirada zorrotz, kritiko eta serio bat. Hau ez da inondik ere Lasarte-Orian indarkeria matxistaren aurkako borroka merezi duen tratu duina.

Non daude erabaki politikoak? Datuak negargarriak dira: “Espainiako Estatuan datuen behera egin arren, Lasarte-Orian, 2020. urtean gora egin dute zifrek: 23 atestatu egon dira, hamabi salaketa eta 37 urruntze agindu”. Horretaz gain, aldizkari honek jaso duenez, prentsaurrekoan esan zuten 102 urruntze agindu daudela egun indarrean.

Horixe da gure errealitate gordina. Eta zein dira udalak egoera iraultzeko hartzen dituen neurriak? Arreta psikologikoa eskaintzen dela diote. Baina nork ematen du arta hori? Psikologo espezializatua da? Gizonezkoa da? Herriko zaintza ere hitz egin genezake: prestatuta al daude udaltzainek emakumeak artatzeko? Bada besterik: zein dirulaguntza jaso ditzake emakume batek halako egoera batean? Zein da baliabide horietara duen sarbidea? Noiz jasotzen ditu laguntza horiek?

Eta herritar guztioi begira: Lasarte-Orian dauden puntu beltzen ikerketa eginda al du udalak? Ba al dago Emakumeon Etxe bat eraikitzeke prozesu baten asmorik? Eskoletan bultzatuko al da hezkidetza? Lan arloan parekidetasuna bermatuko al da?

Galdera asko erantzunik gabe, eta lan asko egiteko, azaroaren 25aren bueltan antolatutako egitarau ia folklorikoaz haratago.

Motz gelditu da aurtengoa (ere), Valdivia jauna.

Eskualde mailako diagnostikotik, ekintzara

Lasarte-Oriako EH Bilduk 'Beterri Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena' txostenaren inguruko ekitaldia antolatu du abenduaren 9rako. Emagin eta Maitelan eragileetako kideak gonbidatu dituzte egitasmoaren berri ematera

Txintxarri

Eskualdeko zaintza lanen erregimenaren diagnostikoa eta ikerketa-lana jorratu ditu Emagin elkarteak, Beterri-Buruntzako udalekin elkarlanean. Herriko EH Bilduk ohar bidez kritikatu duenez, eskualdeko udal guztiek parte hartu dute prozesuan, Lasarte-Oriakoak izan ezik. "Oso larria iruditzen zaigu gure herriko udalak ez parte hartzea; gure herrian ez al ditugu urratsak eman behar zaintzaren alorrean edota parekidetasunarenean? Eskualdeko dinamikan integratu behar du udalak".

EH Bilduk azaldu duenez, duela pare bat urte ekin zioten zaintza lanak demokratizatzeko prozesuari eskualdean: berdintasun- eta enplegu-teknikari eta elkarte feminista zein arrazakeriaren aurkakoekin osatu zuten Foro Feminista izeneko espazioa, asmo hauekin: proiektuari buruz hausnartzea; eskualdeko beharrak identifikatzea; eta ekonomia

feministan formatzea. Lan horri forma eman dio Emaginek, eta *Beterri Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena* izeneko txostena ondu du.

Hitzordua, abenduaren 9an

Lan horri buruz berri emateko asmoz, Lasarte-Oriako EH Bilduk ekitaldia antolatu du abenduaren 9rako, asteazkenez, Mercero gunean, 18:00etatik 19:00etara. Emagin eta MaiteLan elkarteetako kideak gonbidatuko ditu; arestian aipatutako txosten horri buruzko gakoak emango dituzte. EH Bilduk nabarmendu du alde aurretik izena eman behar dutela solasaldi hori zuzenean ikusi nahi duten herritarrek. 683 31 98 21 telefono zenbakira deitu edo idatzi behar dute, edo lasarte-oria@ehbildu.eus helbidera mezu elektronikoko bat bidali. Gehieneko edukiera beteta ere, aretora joaterik izango ez dutenek streaming bidez jarraitu ahaliko dute ekitaldia.

Zaintza eta berdintasunaren alorrean Lasarte-Oriako dagoen egoerak "kezka handiak" sortzen dizkio koalizio abertzaleari. "Ez dugu berdintasun-sailik, ez berdintasun-teknikaririk: lanketa horiek azpikontrata bidez kudeatzen dira. Emakumeon etxerik ere ez, funtzio horiek ez dituelako betetzen Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroak". Lasarte-Oriako EH Bilduk "behin baino gehiagotan" adierazi du horren guztiaren beharra dagoela. "Udalak ez du baliabiderik jartzen zaintzaren eta parekidetasunaren alorrean urratsak emateko eta horiek erdigunean jartzeko; zalantza sortzen digu borondaterik ere ba ote duen horretarako". Alderdiak adierazi du "neurri zehatzak eta baliabide ekonomiko eta pertsonalak" jarri behar dituela udalak, indarkeria matxista jasan eta jasaten duten emakume herritarren kopuruak gora egin duela azpimarratzearekin batera.

Adierazpen instituzionala, aho batez

Azaroaren 25aren harira, udal korporazioko kideek adierazi dute konpromisoa hartzen dutela hainbat helburu lortzeko bidean:

1. Euskadin indarkeria matxistatik gabeko bizitza baten eta berdintasunaren aldeko lege berri bat onartzeko lanean laguntzea, hain zuzen ere emakumeen, biktimen, biziraun dutenen eta mugimendu feministaren proposamenak, eskaerak eta aurrerapenak aintzat hartuta.

2. Indarkeria matxistaren aurkako Euskal Itun bat onartzeko lanean laguntzea, beti ere modu parte-hartzailean eraikia Euskal Herriko mugimendu feministarekin, erakunde eta eragile sozialekin, administrazioekin eta gizarte zibilarekin batera, hain zuzen ere indarkeria matxistaren biktimen erabateko babesa bermatzeko eta indarkeriaren erreparazio, justizia, memoria eta prebentzioarako politika eraginkorrak bultzatzeko.

3. Genero-ikuspegia duten aurrekontuak sustatzea erakundeetan, eta berdintasun aktiboko politika integralak eta parte-hartzaileak garatzera bideratutako giza baliabide eta baliabide ekonomiko espezifikoak areagotzea erakunde guztietan.

4. Euskadiko udalari guztiek indarkeria matxistako biktimen arreta eta babeserako protokolo bat dutela sustatzea.

5. Herritarrei arreta zuzena ematen dieten erakunde publikoetako (osasuna, hezkuntza, justizia, gizarte-zerbitzuak, eta abar) profesionalen prestakuntzarako eta espezializazioarako neurriak sustatzea, aurrea hartzeko eta hautemateko, herritarrei arreta egokia eta kalitatezkoa emateko, berriro biktimitatzea saihestuz, eskubide guztietarako sarbidea ziurtatzea, eta arreta eta babes eraginkorreko protokoloak eta neurri guztiak abian jartzea.

6. Neurriak jasotzen dituzten proposamenak sortzea, haurrak eta nerabeak indarkeria matxistaren biktima gisa aitortuak eta babestuak izan daitezkeen, etxebizitzaren esparruan gertatzen direnean.

7. Udaltzaingoen eta Ertzaintzaren eta Justizia Administrazioaren arteko koordinazio-protokoloak berrikus daitezkeen sustatzea, irizpideak bateratzeko eta administrazioen jarduerak hobetzeko indarkeria matxisten arretan.

8. Biktimei arreta emateko sare publikoa indartzea, zuzeneko arretako, harrerako eta indarkeriari arreta emateko telefonoko zerbitzuak bareraturaz, enplegu duinak ahalbidetzeko, indarkeria matxistaren biktimei arreta, informazio eta laguntza ona emateko lehen urrats gisa.

9. Egungo testuingururako kontzientziazio- eta informazio-kanpaina espezifikoak garatzea eta horietan sakontzea, indarkeria jasaten duten emakumeen hurbileko inguruneak inplikatzuz, babesa eman diezaieten eta egoera dagokien administrazioei jakinaraz diezaieten.

HITZALDIA

Abenduak 9. 18:00-19:00. Antonio Mercero aretoa

Zaintza lanen demokratizaziorantz

Emagin elkarte eta Maitelan kooperatiba

Aforo mugatua: Eman izena 683 319 821-era edo lasarte-oria@ehbildu.eus-era idatziz

ehbildu

Santa Zeziliari omenaldia egin diote akordeoilariek

Akordeoiek zeharkako flauta, fagota eta biolontxeloia izan dituzte lagun, asteburuan Manuel Lekuonan egin den akordeoi jaialdian. Zero Settek XVII. jaialdia egin du aurten eta musika klasikotik hasi eta gaur eguneko musikara bidaia egin ahal izan dute saioan bildutako entzuleek

Txintxarri

Ezin zuen bestela izan, akordeoia izan da larunbat iluntzean Zero Settek antolatutako emanaldiaren protagonista. XVII. Akordeoi jaialdiaren Ad Libitum eta Adelaida taldeek instrumentu horrekin egin daitekeen askotariko musikaren lagin bat ekarri dute Manuel Lekuona kultur etxera. Ordu eta erdi luzatu den saioan, klasikotik gaur eguneko musikara bidaia egin dute entzuleek.

Eneko Sota Zabaleka akordeoilari gazteak, Carlos Rosaten zeharkako flauta eta Tomas Rutiren fagota izan ditu lagun. Ad Libitum hirukoteak Jean Baptiste Brevalen klazisismo frantsesetik Georg Friedrich Händelen musika barrokora bidea egin du emanaldiaren lehen erdian. Ondoren, Adelaida bikote alemaniarrek hartu du



Zero Sette akordeoi taldearen XVII. jaialdiko parte hartzaileak, oholtzan. TXINTXARRI

lekukoa agertokiko argipean. Rebekka Riedel biolontxelistak eta Mateja Zenzerovic akordeoilariak egitarau zabala eskaini dute, barrokotik hasi, kanta herrikoietatik pasa eta pieza garaikideetara helduta.

Ainhua Aiertzeta aurkezlearen eskertza hitzen ondoren, bost musikariek elkarrekin jo dute Astor

Piazzolaren pieza bat. Horretarako, Sota Zabaletak akordeoia bandoneonagatik aldatu du. Amaitzean, oroigarri bana eman bi taldeei. Euren hartu behar izan dute mahaitik, bertaratutakoen txalo artean; eta talde argazkia egin dute egilearekin nahiz Agustin Valdivia alkatearekin.



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

Ostalaritza

Badakit, badakigu guztiok, horretarako manifestazioak, auto-karabanak eta beste hainbat ekintza egin dituztelako, ostalariak borrokan direla. Mahai gainean bi argudio jarri dituzte: batetik ez direla pandemiaren bilakaeraren errudun eta bestetik halabeharrez atek behar badituzte, horrek bizirauteko laguntza sorta bat edo erreskate bat ekarri behar duela adamenean.

Ez naiz horretan sartuko. Hizketan ari diren bi aldeek ezagutzen dituzte xehetasun teknikoak eta onena auzia euren esku uztea izango da. Nire hausnarketa bestelakoa da. Tabernen eta jatetxeen garrantziaz egin nahi ditut bi hitz, horiek gure kulturaren, gure ohituretan eta gure egunerokoa duten pisuaz. Hori ere bagenekien seguru asko baina atek erabat itxi dituzten arte ez gara benetan jabetu tabernako barra baten, terrazaren, edo piztutako argien eraginaz. Horiek ematen diote, lekuko dendeekin batera, bizia herriari, horiek biltzen dute jendea, horiek ematen digute aukera juntadizei leku jakin bat emateko, inorekin geratzeko, edo baita estuasun batean komunera joateko ere, bide batez zurito edo kafe bat hartuta.

Gauza txikiak ematen dute hala esanda baina oso maiz esaten den bezala, zerbait falta zaigunean bakarrik ematen diogu benetan duen garrantzia eta txiki diruditen horiek ez dira berez hain txiki.

Tabernatan asko "inbertitu" dut gaztetandik eta ez da alferrik gastatutako dirua izan, gozamenaren trukekoa baizik. Itzul dadila ahal bezain azkar gozamen hori. Ozen ospatuko dugu. Taberna batean, noski.

Literatur lehiaketako sarituek jaso dituzte euren oroigarriak

Haur kategorietan, orotara, 54 lan jaso dituzte, eta helduenean, 123 poema eta 302 mikrokontakizun

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako bi literatur lehiaketen sariek badituzte irabazleak. Asteburuan, kultur etxeko hitzaldi aretoan egindako ekitaldian norberak zegokiona jaso du. Xumea eta laburra izan da, egungo egoerara egokitua. Aintzatetsitakoez gain, ahaide gutxi batzuek izan dute bertaratzeko aukera, eta elkar ukitzea saihesteko, mahai batetik hartu du norberak zegokion saria. Ia denek egin dute aukerit mahaira bidea euren izena entzutean; falta izan diren bakarrak helduen lehiaketako gaztelaniazko bi irabazleak izan dira, Valentzian eta Tenerifen bizi direnez, ezin izan baitute etorri.

Agustin Valdiviak Gabriel Arestiren hitz batzuk gogoratuz ekin dio ekitaldiari. Agurraren ondoren, Laura Cabedoren *Los ojos de la vida* eta Nikola Iraolaren *Txoriak* poemak irakurri ditu Aitor Tejedorrek, Unax Goenagak jotako piano doinuak lagunduta. Bi lanak sarituak izan dira aurtengo lehiaketetan. Jarraian, Kultura eta Hezkuntza batzordeburu Maite Iglesiasek hartu du hitza. Berak Gloria Fuertes-en poema bat irakurri du, poesia besarkadekin alderatzen dituen, eta elkar besarkatzerik ez den garaiotan poemak idaztea proposatu du.

Zinegotziak azaldu duenez, aurten aurkeztutako lanen kopurua nabarmen murriztu egin

da haurren kasuan, eta, aldiz, hazi, gazte eta helduenean.

Lehiaketako epaile izan dira Joxan Beunza, Iñigo Aldabaldetrekua eta Elena Miguel. Literatur Lehiaketan, berriz, Felipe Juaristi, Karlos Linazasoro eta Elixabete Tolaretxipik, euskarazko lan onenak hautatu dituzte; eta Marian Benitez, Mertxe Tranche eta Abert Vazquezek gauza bera egiteko ardura izan dute gazteleiaz idatzitakoekin.



Literatur lehiaketako sarituak, oroigarriak eskuetan dituztela. TXINTXARRI

HAUR ETA GAZTEEN 33. LITERATUR LEHIAKETA

A KATEGORIA: Zortzi idazlan aurkeztu dira:

1. saria: Lea Apaolaza, 'Kalaren magia' idazlana.

2. saria: Ane Herrera, 'Martin azeria eta sugegorria' idazlana.

B KATEGORIA: 40 idazlan aurkeztu dira

1. saria: Paula Martin, 'Kausa on batengatik' idazlana

2. saria: Leire Ormazabal, 'Umezurtz zoriotsua' idazlana.

3. saria: Gari Iraola, 'Ezinegonak jota' idazlana.

C KATEGORIA: 5 idazlan aurkeztu dira

1. saria: Nikola Iraola, 'Behean beti behean' idazlana.

2. saria: Añes Apaolaza, 'Izertia eta lur hotza' idazlana.

3. saria: Goiatz Aiestaran, 'Itsasoari begira' idazlana.

Poesia: Nikola Iraola, 'Txoriak' poema.

LASARTE-ORIAKO 34. LITERATUR LEHIAKETA EUSKARAZ:

Poesia: Lierni Azkargorta lazkaotarra, 'Somnipoema'.

Mikrokontakizuna: Mikel Gartziaarena donostiarra, 'Ez atera logelatik, txiki'.

GAZTELANIAZ:

Poesia: Laura Cabedo, 'Los ojos de la vida'.

Mikrokontakizuna: Marta Gimenez, 'Juguetes usados'.

'Black Friday' egunak ere herrian izango du jarraipena

Aterpea elkarteko kideek Eguberrietako erosketak aurreratzeko gonbita egin diete lasarteoritarrei

Txintxarri

Aterpea Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteko 24 establezimenduk bat egin dute aurten *Black Friday* ekimenarekin eta gaur, azaroaren 27, ostirala,

beherapenak eskainiko dituzte euren produktu edo zerbitzuetan. Aterpea elkarteko kideek herritarrek gonbidatzen dituzte, beherapenez baliatuz, Eguberrietako erosketak aurreratzera.

Era berean, elkarteko kideen artean banatu dituzten sentsibilizazio kartelak aurkeztu dituzte. Horien bitartez, "hain garai zailtan" herrian erostearen garrantziaz ohartarazi nahi dituzte herritarrek.

Bezeroaren Hamabostaldiko sariak ere banatu dituzte. 500 euroko balioa duten erosketak bonuen zortekoak Izaskun Lopez eta Josean Prado izan dira; 250 euroko sariak, berriz, Arancha Garcia, Edurne Biain, Jose Guerrero eta Aitor Garcia.



Aterpeako kideak, udal ordezkariak eta Bezeroaren Hamabostaldiko sarituak. TXINTXARRI



Udaleko sail batzuetarako hitzorduak Internet bidez eskatu ahal dira. TXINTXARRI

Udal webgunean hitzorduak hartzeko aukera martxan da

Eskaera egiteko ez da erregistrorik edo gakorik behar. Ez dira sail guztietarako hitzorduak eskuragarri egongo

Txintxarri

COVID-19ak eragindako egoera dela eta, eta ahal den neurrian jende pilaketak eta horien ondorioz sor daitezkeen kutsatzeak saihesteko, udalak beharrezkoa ikusi du herritarrei hitzorduen eskaera egiteko modu berriak eskaintzea. Orain arte soilik telefonoz eskatu zitezkeen hitzordua, baina orain, web atariaren bidez (www.lasarte-oria.eus) ere eskuratu ahal izango dute herritarrek.

Horretarako ez da nahitaezkoa atarian erregistratzea edo gako operatiborik edukitzea, nahiko da sistemak eskatzen dituen datuak sartzea eta hitzordua eduki nahi den egun eta ordua aukeratzea.

Oraindik, ordea, ezin daiteke aurrez hitzordurik eskatu udaleko sail guztietarako.

Momentuz, Alkatetza, Kontu-hartzailea, Diru bilketa, Erregistroa, Errolda eta Euskara salekin kontaktatzeko hartu daiteke hitzordua. Gainerako sailekin harremanetan jartzeko honako telefono zenbakira deitu behar dute herritarrek: 943 37 60 55.

Eskaera, herritarrei

Lasarte-Oriako Udalak hitzordura joateko interesa duen lasarteoritarra baino ez bertaratzea eskatzen du.

Era berean, herritarrek aurrez eskatu duten hitzorduren bat erabili behar ez badute, bertan behera uzteko eskaera egiten die. Horrekin batera, udalak gogorarazi du nahitaezkoa dela maskara jantzita edukitzea eta segurtasun-neurri guztiak errespetatzea.

Lasarte-Oria 2020

BLACK FRIDAY

Azaroak 27

Parte-hartzaileak

MABEL moda	peluquería MARBELL	ZUBIETA MOTOR	NATURHOUSE	DECO 75 textil hogar	ferretería cerrajería JOSEMA
perfumería MAIANE	peluquería MARIAN OLAIZOLA	mercería ARITZA	NORTH TEAM nutrizioa	DOAL salud (fisioterapia)	óptica IRIGOYEN
ferretería SUKOA	peluquería caballeros ANA	OLA enmarcación	gimnasio SAITO	electricidad ARREGUI	BIDEO LAGUNAK
ORMAZABAL loradenda	IMAGINE jantzi denda	mercería MAUXA	ALBA moda	bazar ABREU	zapatería ITURBE

aterpea LASARTE-ORIA UDALA - AYUNTAMIENTO LASARTE-ORIA TRATU ON BAT UN BUEN TRATO Euskadi, argalana, bira cometa EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Betiko leloetan korapilatuta

JONE MIREN HERNANDEZ EHU-KO IRAKASLEA ETA IKERKETAREN ZUZENDARIA
Gazteek euskararekiko diskurtso berririk sortu ez dutela ondorioztatu du, besteak beste, Jone Miren Hernandezek eta Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketak

Maddi Zaldúa

Gazteek euskararen inguruan dituzten diskurtsoak, praktikak eta atxikimendu emozionala aztertu du Soziolinguistika Klusterrak. Azterketa kualitatiboa izan da eta Jone Miren Hernandez (Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1970) EHUko Antropologia irakasleak zuzendu du. Berarekin batera, beste hiru ikerlari eta Olatz Altuna klusterreko ikerlaria ere aritu da, koordinazio lanetan. Gipuzkoako Zumaia eta Pasai Donibaneko eta Bizkaiko Gernika-Lumo eta Zornotzako gazteen errealitateak behatuta osatu dute ikerketa.

Zein diskurtso dute gazteek euskararen inguruan?

Batez ere familia eta eskolaren bitartez jaso dituztenak. Askorentzat, nik uste dut horiek izan direla iturri nagusiak, etxean eta eskolan jaso, entzun eta esan zaiena. Eta gero, oro har, gizartean dauden diskurtsoak ere bai, noski. Komunikabideetan transmititzen direnak, esate baterako. Hortik elikatu dira eta hori da transmititzen dutena. Hori bai, helduok, belaunaldi zaharragoetakook sortutako diskurtsoak dira gehienbat.

Zein lelo jaso dituzue?

Nire belaunaldiko jendearentzat oso ezagunak direnak: euskara hizkuntza zaharra dela eta horregatik mantendu egin behar dela; galtzeko arriskua duela eta salbatu egin behar dela; altxor bat dela eta abar.

Betiko lelo horiekin batera estereotipo asko ere topatu ditugu.

Ikasteko oso zaila dela, euskara bereziki familiaren bidez ikasten dela edo familian ikasten dutenak direla

bakarrrik euskara erabiltzen dutenak eta abar.

Hutsunea sumatzen duzue orduan? Diskurtso berri eta propioen falta.

Bai, ikusten duguna da beste gai batzuekin gertatzen ez den bezala, asko kostatzen zaiela euskararen betiko leloetatik eta estereotipoetatik atera eta diskurtso propioak egituratzea. Jaso dutena erreproduzitzen dutela. Ez dituzte agertzen hizkuntzarekiko dituzten kezak,

ezta nahiko luketena ere, edo euren artean zein eztabaida gertatzen ari diren orain, eztabaidatzen den edo ez, eztabaidatzen bada zergatik, zeren inguruan, zer nolako hausnarketak egiten dituzten e.a. Gutxi jasotzen da hortik; diskurtso mailan larri ikusi ditugu.

Zergatik ez da eman gazteen artean diskurtso berririk? Zerk eragin du horretan?

Lehenik, esango nuke, egoera eroso batean jaso dutela hizkuntza eta berarekin lotutako irudiak, leloak, eta abar, eskolaren bitartez, eta horrek eragin bat dauka. Momentu batean euskararen berreskurapenean

apustu bat egiteko beharra ikusi zen, egin zen eta oso ondo egin da, eskola izateko belaunaldi berriak euskaldunduko dituenak. Baina horrek ere baditu ondorio batzuk, eta horiek ikusten ari dira baita ere beste testuinguru batzuetan. Gazte askorentzat normalena da euskaraz ikastea, beraien normaltasunean dago txertatuta, normalitate batean ikusten dute eta horrek, nolabait kentzen dio tentsio puntu bat.

Halere, euren artean hizkuntzarekin lotutako talkak gertatzen direla ere ikusi dugu.

Zer nolako talkak?

Hainbatetan, egoera tentsioak gertatzen dira gazteen artean. Batzuek euskaraz hitz egin nahi dute, beste batzuek ez, edo batzuk zailtasunak dituzte eta badakite oso ondo horren aurrean nola jokatu. Egunerokoan gisa horretako egoerak gertatzen zaizkigu, edonori, eta gazteak, ohitu dira egoera horiek kudeatzera. Ikerketan ikusi dugu segituan antzematen dituztela tentsio egoerak, eta horiei, hizkuntza aldatuz erantzuten dietela. Nahiko modu automatikoan egiten dute aldaketa hori gainera, eta adibidez, ez daude ohituta talka horien inguruan hitz egitera.

Zergatik ez dute gaiak hitz egiten?

Batzuetan talka horiek pertsona ezezagunekin gertatzen zaizkie, baina beste askotan, berriz, gertuko pertsonekin, senideekin, ikaskideekin... eta ez daude ohituta talka horiez hitz egitera. Tentsioa saihestu egiten dute, horretara ohituta daude eta hori modu naturalean eramaten dute. Gogoetarik ez dute egiten, edo ez dute tentsio egoera horien inguruan lasai hitz egiten. Ez diote elkarri galdetzen zer egin dezaketena, nola sentitzen diren une horietan eta abar.

Hitz egingo balitz, argumentuak agertuko lirakeke, ideiak, baina ez denez hitz egiten, ez dira mahai gainean jartzen ez diskurtso, ez argumentu ezta ideia berriak ere. Baina konturatu behar gara, horrela jokatzeko jarraitzen badugu, ez ditugula korapilo horiek askatuko.

Ikerketaren beste aztergai batera pasatuz, zeintzuk dira gazteek euskararekiko dituzten praktikak?

Atal honetan gazteen erreferentziatzeko taldeetan egin

dugu ikerketa. Horretarako aztertu genituen musika talde bat; kuadrilla bat; kirol talde bat eta lokal edo lonja bat. Ikusi nahi genuen egoera edo gune ezberdin horietan egiten duten hizkuntzaren erabilera; non erabiltzen duten eta non ez, norekin erabiltzen duten, zertarako eta abar. Emaitza ezberdin ugari jaso ditugu.

Ikusi dugu asko kostatzen zaiela, esate baterako, lagunartean euskaraz aritzea ohiturak ez badituzte oso finkatuta. Adibidez, lokal edo lonjen kasuan, ohitura edo inertzia bada gaztelaniaz hitz egitea, asko kostatzen zaie aldaketa egitea. Hor ere badu zerikusia, noski, aurrez aipatutakoak; gertuko harremanak direnez, ezin dute egon etengabeko konfliktu egoera batean, ez dute egoeraz hitz egiten tentsioak ekiditeko.

Eta euskararekiko zein atxikimendu emozional dute?

Ondorio nagusietako bat izan da ikusten dugula hiztun mota asko daudela eta horrekin lotuta, atxikimendu oso ezberdinak.

Nik esango nuke, eta guk jaso duguna da, batzuk arduratuta daudela. Beraiek badakite hitz egiten dutena baino gehiago egin dezaketela eta egin behar dutela. Eta horren aurrean, jarrera ezberdinak ere topatu ditugu. Batzuk hotz agertzen dira; badakite egin dezaketena baino gutxiago egin dutela euskaraz, baina jarrera horrekin jarraitzen dute. Beste batzuk, berriz, arduratuta daude; badakite egin dezaketena edo beharko luketena baino gutxiago egin dutela eta horrek sortzen die kezka bat. Badaude baita ere euskaraz asko egiten dutenak baina kezkatuta daudenak euren adinkideek gutxi erabiltzen dutelako.

Irakurri elkarrizketa osoa
www.txintxarri.eus atarian

EPA LASARTE HHI



EUSKARALDIArekin
bat egiten dugul!



ARIGUNE
izango gara!



Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus



OPARITU ILUNABARRIK GOXOENA

SunsetBastian

www.sunsetbastian.eus

reservas@sunsetbastian.eus

[@ssunsetbastian](https://www.instagram.com/ssunsetbastian)

Ahoa bizi, eta belarriak prest

Erronkometroek nabarmen egin dute gora Euskaraldian izena emateko azken egunetan. Lasarte-Orian 1.496 'ahobizi' eta 609 'belarriprest' ari dira hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala egiten. Norbanakoez gain, entitateak ere buru-belarri ari dira ariguneetan

Txintzarri

Euskaraldi betean murgilduta gauden egun hauean izan dugu behin-betiko izen-emate datuen berri: 2.105 lasarteoriatar animatu dira bi roletako bat hartzera; *ahobizi*, edo *belarriprest*. Azaroaren 24a izan da diptikoa edo formulario digitala bete eta ariketa sozialean murgiltzeko eta modu kolektiboan hizkuntza-ohiturak astindu eta aldatzeko, koronabirusa gutxitzeko Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriek ahalbidetzen duten heinean behintzat. Ariketaren erdialdera iristen ari gara, azaroaren 20an

hasi baitzen eta abenduaren 4an amaituko baita. Hortaz, animo parte hartzen ari zareten herritar eta entitate guztio!

Norbanakoak ez ezik, entitateak ere protagonista dira Euskaraldiaren bigarren edizio honetan: ariguneak sortu dituzte enpresek, erakundeek, komertzioek zein kirol eta kultur elkarteek; euskaraz lasai hitz egiteko guneak dira horiek. Barne ariguneak dira horietako batzuk, eta kanpo ariguneak besteak, segun eta harremanak etxe barruan edo hortik kanpora egiten diren, ariguneez izenak ongi adierazten dutenez.

Lasarte-Orian 65 erakundeak sortu dituzte ariguneak: 136 barnekoak dira, eta 271 kanpokoak. 1.141 kidek osatzen dituzte horiek.

Lasarte-Oriako Udalak, esate baterako, 69 arigune hamazazpi barne arigune eta 52 kanpo arigune sortu ditu departamentu ugaritan; 143 kide ari dira hizkuntza ohiturak astintzen horietan. Korporazioko kide diren alderdietatik, EH Bilduk eta EAJk sortu dituzte ariguneak.

Ttakun Kultur Elkarteak 11 barne arigune ehundu ditu, eta kanpoko 61. 118 kidek osatzen dituzte euskaraz lasai hitz egiteko gune horiek.



Txapak jasotzeaz gain, photocallean argazkiak atera dituzte herritarrek. TXINTXARRI

LASARTE-ORIA
EUSKARALDIA
GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN



Erakundeak: 65
Kideak: 1.141
Kanpo ariguneak: 271
Barne ariguneak: 136



609 1.496
Guztira: 2.105

Maitete



E TELU



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



EUSKARALDIArekin bat egiten dugul

Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 48 86 • www.mbetelu.com



Euskarazko eta kalitatezko 10.000 produktu baino gehiago eskura, Katalogoarekin

Kalean da Euskarazko Produktuen Katalogoa, bere 22garren edizioarekin; eta urtero bezala, euskarazko ehunka produktu gomendatuko dizkie, 0-12 urteko haurrei eta 12-16 urteko gazteei. Interneten, 'katalogoa.eus' atarian, are zabalagoa da eskaintza: 10.000 produktu baino gehiago daude ikusgai, etengabe eguneratuta.

BURUNTZALDEA EUSKARA

Kalean da Euskarazko Produktuen Katalogoa, bere 22garren edizioarekin; eta urtero bezala, euskarazko ehunka produktu gomendatuko dizkie, 0-12 urteko haurrei eta 12-16 urteko gazteei. Interneten, 'katalogoa.eus' atarian, are zabalagoa da eskaintza: 10.000 produktu baino gehiago daude ikusgai, etengabe eguneratuta.

22garren edizioa du aurtengoa, Euskarazko Produktuen Katalogoa; eta dagoeneko kalean da paperekoa: 70.000 ale inguru banatuko dituzte, eskola, liburudenda eta liburutegietan. Eta ohi bezala, bere orrialdeetan topatuko dituzte haur eta gazteek, euskarazko ehunka produktu, aisia dirako. Guztiak kalitatezkoak, izan urtetik urtera interesgarri suertatzen direnak, edota urteko nobedadeak: liburuak, ipuinak, jostailu eta jokoak, musika, aldizkariak, komikiak, filmak, aplikazioak, gurasoentzako materiala...

Izan ere, euskarazko produktu interesgarrienak aukeratzen dituzte urtero, katalogoa osatzeko, arlo ezberdinetan aditu diren hainbat lagunek.

Eskaintza hori, baina, askoz ere zabalagoa da interneteko euskarrian, katalogoa.eus atarian. Bertan, euskarazko 10.000 produktu baino gehiago aurkituko dituzte bisitariek, etengabe eguneratutako Katalogoan.

Bi atal ezberdin, Katalogoak

Bai papereko edizioak, eta baita internetekoak ere, bi atal ezberdin dituzte, bi adin tarterri eskaintzakoak. Haurrentzako osatu dute horietako bat, 0-12 urte bitartekoentzat; eta

gazteentzako produktuak jasotzen ditu besteak, 12-16 urtekoentzat.

Webgunean, nahikoa da talde bakoitzari dagokion atalean sartzea, horiei bereziki zuzendutako milaka produktu ikusteko, oso modu errazean. Guztiak daude atalka antolatuta, eta bilatzailea ere badauka webguneak, gainera.

Paperean, berriz, bi alde ditu Katalogoak; eta baita bi portada ere, adin tarte bakoitzeko bat. Horrela, Katalogoa alde batetik hartzen badugu, ikusiko ditugu 0-12 urteko haurrentzako produktuak, eta gurasoentzako materialak; eta buelta emanez gero, 12-16 urteko zuzendutako produktu bilduma izango dugu esku artean. Horrela, produktuen bilaketa nabarmen erraztu diete erabiltzaileei, eta nortasun propioa hartzen du adin tarte bakoitzak. Webgunean bezala, atalka antolatuta daude produktuak, papereko edizioan ere.

8.800 ale Buruntzaldean

Katalogoa osatzeko lanetan, parte hartzen dute Euskal Herriko 120 bat udal eta mankomunitatetako Euskara Zerbitzuek, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan banatzen dute papereko edizioa, urtero. 70.000 ale horietatik, zati handi bat iristen da Buruntzaldeko etxeetara. Izan ere, guztira 8.800 ale banatzen dituzte gure

Doako harpidetzaren bitartez, hilero jaso daiteke Katalogoa



Buletinera harpidetzeko gunea eta nobedadeak dauzka, 'katalogoa.eus' webguneak

eskualdean, ikastetxeen bitartez bereziki.

Zehazki, Euskarazko Produktuen Katalogoaren 2.300 ale banatzen dira Lasarte-Orian, 2.000 Hernanin, 1.600 Andoainen, 1.100 Astigarragan, beste 1.100 Urnietan, eta 700 Usurbilen.

Euskarazko produktu berrienak

Produktu interesgarrien aukeraketa eskainiko du papereko edizioak, datozen asteotarako ezin aproposagoa, urteko garai honetan aukera paregabea izaten baita, euskarazko liburuak, musika edota jostailu eta jokoak erosi eta oparitzeko. Baina euskarazko produktuak kontsumitzeko urteko edozein egun denez ona, unean uneko nobedade guztiak ere jartzen ditu bisitarien eskura Katalogoak, urteko edozein garai dela ere, interneteko edizioan. Izan ere,

Maiztasunez eguneratzen da Katalogoaren interneteko edizioa (katalogoa.eus)

maiztasunez eguneratzen da sareko Katalogoa, argitaletxeek eurek elikatzen baitute: urtean zehar kaleratzen dituzten produktuak, labetik atera berritan gehitzen dituzte Katalogoan; eta deskatalogatu direnak, berriz, kendu egiten dituzte. Hori horrela, etengabe ari da hazten katalogoa.eus.

Gainera, produktu gehiago bildu ez ezik, produktuei buruzko xehetasun gehiago ere jasotzen ditu Katalogoak, interneteko edizioan. Egileei eta argitaletxeari buruzko informazioa aurkitu daiteke bertan, produktuari buruzko azalpena ere bai, noiz argitaratu duten, edota zein adin tarterri zuzendutakoa den, besteak beste. Eta erosketarako egiteko ere, lana errazten du: produktu hori non eskuratu dezakegun emango digu aditza, eta baita prezioa ere.

Produktuen aniztasuna eta Katalogoak eskaintzen duen aukera ezin zabalagoa da. Haurren atalean, esaterako, 3.300 liburu eta ipuin baino gehiago aurkitu ditzakegu, 250 jostailu eta joko inguru, 140 disko, 120 pelikula, 80 komiki, 100 informatika produktu eta aplikazio, 60

aldizkari, gurasoentzako 45 produktu, 370 ikasmaterial, eta 120 liburu elektronikoa.

Gazteentzat ere, oso zabala da Euskarazko Produktuen Katalogoaren aukera: 1.550 liburu daude, 30 jostailu eta joko, 1.290 disko, 96 komiki, 71 pelikula, 30 produktu informatiko eta aplikazio, 60 aldizkari, 156 ikasmaterial, eta 210 liburu elektronikoa.

Haurren atalean zein gazteenean, produktuak ordenatu daitezke atal bakoitzean, izenburuaren, egilearen, argitaletxearen eta argitaratzen urtearen arabera. Eta bilatzailearen bitartez ere, modu errazean aurkitu daitezke produktuak.

Euskarazko Produktuen Katalogoa esku artean izan ez duenak, gainera, interneten bertan deskargatu dezake, PDF formatuan, adituek egindako aukeraketa ikusteko.

Buletinera harpidetzeko aukera

Webgunean bertan, nobedadeei eskaintzako atala ere badauka Katalogoak, gehitu diren azkeneko produktuak aditza ematen dituen. Baina horrez gain, nobedadeen berri emateko beste zerbitzu bat ere eskaintzen du Katalogoak: buletinera harpidetza. Doakoa da, eta katalogoa.eus webgunean bertan dago txoko bat, harpidetza egiteko. Horretarako, nahikoa da izena eta helbide elektronikoa ematea; eta hortik aurrera, hilero jasoko dugu buletina gure posta elektronikoa, hilabeteko nobedadeetako batzuen berri emanez. Webgunea eta buletina ez ezik, beste bide bat ere badauka Euskarazko Produktuen Katalogoak, nobedadeen berri eman eta produktuak gomendatzeko: Facebooken daukate orrialdea, Euskarazko Produktuen Katalogoa izena duena; eta bertan argitaratzen dute, Katalogoarekin lotutako edozein albiste. Gai edo egun jakin batzuekin lotura duten produktuak ere ematen dituzte aditza, unean-unean.

«Irakurzale diren haur eta gazteei, gustatzen zaie liburutegira etorri, apal artean ibili eta aukeratzea»

Oso tresna erabilgarria da Euskarazko Produktuen Katalogoa, liburutegietan ere, eta aurtengoa ere, badaukate dagoeneko. Liburutegiko eskaintza eguneratzeko garaian, Katalogora jotzen dute liburuzainek; eta zer irakurri ez dakiten haur eta gazteei, Katalogoa ematen diete, «gomendio edo pista modura». Hala azaldu dute, Hernaniko Udal Liburutegiko arduradunek.

Haurretan, adinaren arabera da, zer irakurri aukeratzea: «5-6 urte arte, gurasoak saiatzten dira haurrei zaletasuna sortzen. Baina 7 urtetik aurrera, haurrek beraiek aukeratu nahi izaten dute, zer irakurri. Bildumak eskatzen dituzte askok, eta abentura edo umorezkoak badira, hobea». Nerabeek, berriz, irakurzale badira, ez diete «askorik galdetzen» liburu-zainei: «nahiago izaten dute beraien kaxa ibili, apalen artean». Aldiz, irakurtzeko hainbesteko ohitura ez dutenak, «gurasoekin etortzen dira, edo gurasoak beraiek datoz

seme-alabentzako liburu bila. Eta horiek bai, laguntza eskatzen digute. Komikiak erakusten dizkiegu, eta baita nerabezaroko eguneroko gaiak jorratzen dituzten liburuak ere».

Haurrak izaten dira, euskaraz gehien irakurtzen dutenak; gazteek, gaztelaniaz gehiago. «Haur literaturan, eskaintza ederra da, zabala. Askotariko gaiak dituzte. Gainera, euskaraz irakurtzera daude ohituta, eta normalean, ez dute gaztelaniaz nahi izaten. Gazteentzat, aukera ez da hain zabala, eta euskaraz dauzkatenak, gainera, ikastetxean eskatzen diete irakurtzeko. Horietatik kanpo, aukera dezente gehiago dute gaztelaniaz».

Liburu bildumek eta komikiak, arrakasta Arrakasta gehien duten liburuak ere eman dituzte aditzera, liburuzainek. «Bildumak dira irakurrienak: Futboleroak, Txano eta Oscar, Geronimo Stilton, YouTuberrren liburuak (Martina, Clodet...), Rita, Junie Jones, Eta zer?, Onin... Gazteen artean, berriz, Blue



Hernaniko Udal Liburutegiko arduradunak, haur eta gazteentzako liburuekin.

Jeans, You, Los gatos guerreros...». Oso irakurzale ez direnei, komikiak gomendatzen dizkiete beraiek: «Superpatata, adibidez, arrakasta handia ari da izaten». Asko mailegatzen diren bildumak ere erakusten dizkiete, «batzuentzat ez direlako hain ezagunak». Eta baita Galtzagorrik gomendatzen dituenak ere: «askotan, bildumetatik kanpokoak izaten dira horiek, ez oso ezagunak, eta merezi du guk ezagutzera emateak».

Liburu mota bat edo beste, irakurzaleek gustuko dute liburutegira joan, apal artean ibili, eta beraien aukeraketa egitea. «Hori ez da askorik aldatu». Eta ezta euskarria ere: «ez dugu uste, asko direnik liburu elektronikoa aukeratzeko duten gazteak. Irakasleek ere gauza bera esan izan digute, haiekin komentatu dugunean. Irakurtzekotan, nahiago dute paperean irakurri», nabarmendu dute.

0-16 urte

Katalogoa

EUSKARAZKO
PRODUKTUEN
KATALOGOA 2020-2021

OPARITU EUSKARAZ

WWW.KATALOGOA.EUS

EUSKARAZKO PRODUKTUEN
KATALOGOA

Kalera atera dira protesta egitera

Kolektibo ugari protesta egin dute egun hauetan herrian barrena: kalera atera dira Atsobakar egoitzako langileak, ostalari eta hornitzaileak eta Mendebaldeko Saharako herritarrei elkartasuna adierazi dieten eragile eta norbanakoak

Txintxarri

Atsobakar zaharren egoitzako langileak pairatzen duten utzikeria salatu eta euren lan baldintzak hobetzeko borrokan daude. Urrik astezkenero egoitzaren aurrean elkartzen badira ere, asteazken honetan Lasarte-Oriako kaleetatik barrena ibili dira.

Atsobakar zaharren egoitzatik Donostia etorbidera eta Kale Nagusitik barrena euren eskaerak lau haizetara aldarrikatu dituzte langileak.

Herritik itzulia eman eta Atsobakar zaharren egoitzan bertan amaitu da mobilizazioa. Bertara iristean egoitzeko egoilar eta langileek txaloekin agurtu dituzte.

Aldarriak, errepidetik

Ibilgailuetan zein oinez, ostalariek errepidetik egin dituzte azken aldarrikapen ekintzak: auto karabana eta manifestazioa. Koronabirusaren hedatzea

gutxitzeko agintariak hartutako neurri murriztaileak direla eta, azaro hasieratik itxita dituzte euren negozioak zenbaitek –beste behin ere–. Beste batzuk lanean ari badira ere, eramateko eskariak prestatuz, sektorearen egoerak "oso larria" izaten jarraitzen duela nabarmendu dute.

Igandeko manifestazioaren ondoren, plazara iristean, biribilean jarri eta txalo egin dute. Orduan, hitza hartu du Aitor Salegik ostalarien izenean. "Lasarteoriatarrei eskerrak eman ostalaritzari ematen ari zaretzen babesarengatik. Dakizuen bezala oso egoera zail eta kritikoa gaude eta guretzako laguntza handia da. Deitzen zaituztegun bakoitzean etortzen zarete, esku bat bota eta laguntzen gaituzte. Babes moral garrantzitsua da".

"Sahara askatu"

Lau hamarkada baino gehiago dituen gatazka bada ere, berriro albisteen protagonista da

Mendebaldeko Sahara eta Marokoren arteko guda. Afrika iparraldean gertatzen ari denaren berri eman eta elkartasuna adierazteko bildu dira dozenaka lagun ostiral iluntzean Okendo plazan. Bertan izan dira ere, Andoain, Usurbil edota Hernanin bizi diren zenbait saharar. Marokoren eta Espainiaren aurkako oihuak entzun dira, "Sahara askatu"-rekin batera, euskaraz zein gaztelaniaz; eta beste zenbait arabieraz.

Bukaeran hitza hartu du Hassana Aalia aktibista sahararrak: "Egoera zaila da, Maroko okupatutako lurretan dauden herritarren giza eskubideak urratzen ari da. Argi dugu modu guztietan borrokan jarraituko dugula independentzia lortu arte". Halaber, erantzuleak ere izendatu ditu. "Erruduna Espainia, nazioartea eta NBE dira urte guztietan ez baitute Maroko behartu autodeterminazio erreferenduma egitera".



Atsobakar zahar egoitzeko langileak lan baldintza duinen alde kalera atera dira. TXINTXARRI



Herritarrek bat egin dute ostalariekin aldarriekin beste behin. TXINTXARRI



Eskualdeko saharar ugari parte hartu dute elkarretaratzean. TXINTXARRI

Jabi Gallagaren egoera eta Cordobako espetxea hizpide

Espetxe Politikaren Behatokiko kide Teresa Todak eta Maider Galardi kazetariak eskaini dute solasaldia

Txintxarri

Hogeit bat lagun batu ziren, azaroaren 21ean, Udal Euskaltegiaren hitzaldi aretoan Espetxe Politikaren Behatokiko kide Teresa Toda eta Maider Galardi kazetariaren solasaldia entzuteko.

Gaiarekiko interesak bitxoenetan du oinarri. Batetik, irailean Cordobako espetxetik irten den Iñaki Alonsoren testigantza, 33 urteren ondoren. Bertan, isolamendua nola eragiten dien adierazi du. Bestea, Foru Sozialak oraintsu egindakoa, zehazki, isolamendua eta gradu aldaketarako

oztopoak aztertzen dituen kartzela horretan. Gai sakondu eta bertan den Jabi Gallagaren egoera hobe ezagutzeko antolatu dute solasaldia.

Marko juridikoaz gain, ikuspegi humanoa ekarri nahi izan zuten, preso baten egunerokoari erreparatuta. Izan ere, Toda bera, Cordobako espetxean preso egon baitzen, beste espetxe batzuren artean.

Lehen azalpena gradu bakoitzaren baldintzei buruzkoa izan zen. Lehen graduan, patio orduak mugatuak, ezin dute ekimenetan parte hartu, komunikazioak interbenituta dituzte,



'Bidea gara, bidean gaude' ekimenarekin bat egin du Lasarte-Oriako Sarek. TXINTXARRI

besteak beste. Baldintzak, ordea, gogorrak edo malguak izan daitezke gradu berean egonda.

Muturreko egoera isolamendua da. Espetxe barruan, "isolamenduko moduluak zigor modulu bezala diseinatu daude. Galeria txikiak dira, hamar ziegakoak, patio oso txiki bat, ate gogor eta astunak, gauzak pasatzeko gune batekin.

Pentsatuta daude gehienez jota hamalau egun igartzeko". Egoera oso gogorra dela azaldu zuen Todak, estres handiko modulua dela eta harremantzeak duen garrantzia nabarmendu zuen. Ildo horretatik, Galardi gogora ekarri zuen badirela zenbait ikerketa ondorioztatzen dutenak hamalau egunetik aurrera zigor ziega horietan egoteak

"atzerazinezko kalte psikologikoa" eragiten duela eta Gallagaren hamasei urte daramatzala horrela. Todak argitu zuenez, honetarako helduleku juridikorik ez da, bestelako neurri batzuetan bilatzen dute aitzakia.

Gallagaren gradu aldaketa eskatu duenean, jaso dituen ezezkoak "corta y pega" direla argitu zuen Galardik. Hiru multzotan banatzen dira: erantzukizun soziala bere gain ez hartzea, nahikoa damu ez adieraztea eta jarrera zezegokia nahiz dagokion delituaren larritasuna. Antza, aldaketa bat izan da eta Espainiako espetxe zuzendaritza orokorrak Cordobako espetxeari eskatu dio bere erabakiak kasu kasu zehazteko, argudio orokorrak erabili gabe.

Ibon Fernandez Iradiren egoeraren berri ere eman zuten eta azkenik, talde argazkia atera zuten osasun zentroko atarian.

INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN EZ ZAITEZ IKUSLE HUTS BATIZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

Nerea Eizagirre

S8 mailako absolutu mailako espainiako bi marka berri ezarri ditu asteburuan, Nahia Zudaire (Zubieta, Donostia, 2004) igerilariak. Buruntzaldea IKTko kideak Andaluziako II. Txapelketan – Multidisability igeriketa Openean– parte hartu zuen eta 400 metro libre proban 200 m. eta 400 m. markak hautsi zituen. Gainera, Tokioko Joko Paralinpikoetako gutxieneko markatik gertu ibili zen. Uretara bikain itzuli da igerilari gaztea. Urrian, 34. IDM Berlin 2020-Para Swim World Series proban egon zen eta sei domina eskuratu zituen. Zudairekin solasean egon gara lehiaketa denboraldi berri honen hasieran.

Martxotik ezin izan zara lehiatu eta lehen txapelketa izan zenuen urrian, Berlinen. Urduri zinen? Nolako esperientzia izan da?

Ni konkretuki urtarriletik egon naiz lehiatu gabe, lesio pare bat eduki nituen eta.

Berlin potentia izan zen. Lehia hasteko era intentsoa izan zen, zeren eta ez baita eremuko lehiaketa bat edo hobe esanda, lehiaketa lasai bat; maila handiko lehiaketa izan da. Baina horrek denboraldian zehar lasaitasuna emango didala uste dut. Gainerako lehiaketak ondo hartzeko modu bat izango da.

Egia esan, lasai joan nintzen. Kontuan izanda duela urtebeteko Nahiak lehiaketak nola hartzen zituen. Oso lasai nengoen, lehiaketan kontzentratua, baina %100 horretara zentratua egon gabe. Ez zen bizitzako gauza bakarra.

Eta egia esan oso gustura egon nintzen Berlinen. Oso esperientzia ona izan da. Oso gustura nago egindakoarekin. Oso pozik nire burua eta gorputzak nola erantzun duten ikusita; hobe esanda, nik nola erantzun dudana ikusita.

Txapelketan, bost proba egin zenituen lau egunetan. Nola moldatu zinen?

Proba intentsoak egin nituen Berlinen. 400 metroko probak eta tximeletak nahiko nekatzen dute. Baina lau egunetan probak banatzea eramangarriagoa izan zen eta ez zitzaidan aldapan gora egin. Ni lehiatzera joan nintzen. Aurreko urteetan baino proba gutxiago egin nituen, gainera. **Hala ere, sei domina lortu eta Espainiako bi errekor berri ezarri zenituen. Espero al zenuen horrelako emaitzarik lortzea?**

Aurtengoak emaitza onak dira eta dominak horren erakusle dira.

"Positiboa da denboraldi fase honetan marka horietan egotea"

NAHIA ZUDAIRE BURUNTZALDEA IKT-KO IGERILARIA

Urtarriletik lehiatu gabe egon da igerilari gaztea. Urritik hona, ordea, bi txapelketetan parte hartu du, eta, dominez gain, Espainiako marka berriak ezarri ditu S8 mailan



Nahia Zudaire, Andaluziako txapelketan lehiatu baino lehen. NAHIA ZUDAIRE

Oso positiboa da denboraldiko fase honetan marka horietan egotea. Egiten ari garen lanaren emaitza ona da. Eta horrek bultzatzen zaitu aurrera bidean eta errazago egiten du. Ondo hastea asko eskertzen da.

Nola prestatu zenuen hitzordua? Entrenamendu berezirik egin al duzu?

Ez nuen proba bereziki prestatzeko denbora askorik izan. Irail hasieran hasi nintzen lanean, bost aste izan nituen eta denbora horretan ezin dira mirariak egin. Metro karga

Berlinera joan baino egun bat lehenago jaitsi nuen.

Lehiaketa hau proba modura hartu genuen gainera. 'Goazen ikustera nola lehiatzen dudana, nola erantzuten dudana lehiaketan...'. Lasaitasunez hartu genuen. Beraz, probatzera joan nintzen eta ondo ateratzen bazen ondo eta gaizki bazihoan, akatsetatik ikasi eta aurrera. **Baina irail aurretik entrenatzen egongo zinen, ezta?**

Aipatu bezala, itxialdian lesionatua egon nintzen. Itxialdia ezarri baino hamar egun

lehenago, martxoaren 3an, izan nuen belauneko lesioa. Hirugarren mailako bihurtura egin nuen. Baina buruko lesio bat ere banuela esan daiteke. Ni ez nengoen lehiatzeko, ez nengoen berriro lehiari sartzeko...

Beraz, itxialdia niretzako plus bat izan da. Lasaitasuna izan da. Nire buruarentzat denbora eduki izana ongi etorri zitzaidan. Behar nuen nire buruarekin egon eta nahi nuena aurkitu. Itxialdiak hori erraztu zuen.

Lesio fisikoari buelta ematen hasi nintzen, belauna osatzen hasi zenean, bizikleta asko egin nuen. Arraun asko ere, arraun-makinak utzi zizkiguten eta core ere egiten hasi nintzen.

Ez zen egoera onena izan; igerilariok uretatik atera eta ez dakigu ezer egiten. Errazago izan zen itsasoan entrenatzeko aukera eman zigutenean.

Konfinamendua arintzeak eta COVID-19aren aurkako neurri ezberdinek nola eragin dute zure prestaketan? Nik zorte asko izan dut aurten. Donostian nago entrenatzen. Murrizketak eta neurriak daude, baina ez didate asko eragin. Maskara, distantzia mantentzea,

"TOKIOKO JOKO PARALINPIKOAK BURUAN DUGUN IDEA DA, BAINA ORAINDIK GAZTEA NAIZ"

baina egia da gure talde osoak ahal duela entrenatu. Gimnasio propioa dugu... Baliabide guztiak ditugu entrenatzen jarraitzeko eta zentzu horretan zorte handia daukagu.

Aldaketa konstanteak bizi beharra ez da erraza eta guk lasaitasun hori daukagu. Badakigu hurrengo egunean igerilekua dugula, gimnasioa... **Iragan asteburuan, Cadizen egon zara Espainiako selekzioarekin lehiatzen. Bertan ere, bi probatan parte hartuko duzu eta bi Espainiako errekor ezarri dituzu. Bete zenuen txapelketako helburua?**

Denboraldiko fase honetan ez gaude helburuak betetzeko. Oraindik metro asko geratzen zaizkigu egiteko eta gauza asko hobetzeko. Asmoa hor gaudela erakustea izango litzateke. Marketan egon gaitezkeela eta denboraldian zehar helburuetara gerturatu ahal garela ikustea.

Orain lehiaketako sentsazioak aurkitzea litzateke garrantzitsua eta nire marketara ahal den gehiena gerturatzea.

Tokioko Joko Paralinpiarretako gutxieneko markatik gertu ibili zara. ametsa izango litzateke bertan egotea?

Buruan daukagun idea da, baina gaztea naiz. Lehengo urtean zerbait ikasi banuen, nire bizitza joko batzuegatik ezin dudala baldintzatu da. Lortzen badugu, egoerak, nire gorputzak eta nire buruak ahalbideratzen duelako izango da. Eguneroko bizitza ere hor dago. Gertatzen bada, gertatuko da, eta, ez bada gertatzen, zerbaitengatik izango da.

Hurrengo urteko Europako txapelketan egoteko borrokatuko zara?

Europako txapelketa buruan dut. Maiatzean izango da, baina presio gabe, lasaitasunarekin, disfrutatzea, nire buruarekin ondo sentitzera joango naiz eta ea zer gertatzen den.

Beraz, 2020-2021 denboraldi lehiaketa gehiagotan parte hartzea espero duzu?

Bai, zaila izango da. Egoera honek ematen diguna edozein aukera gehiago baloratzea dakar. Lehiaketa dagoenean, 'Bua! Lehiaketa dut eta disfrutatuko dut, agian azkena baita' esatea ekarriko du.

Denboraldi honetan disfrutatzea izango da gakoa. Ez dakigu egingo dugun lehiaketa azkena izango den edo gehiago egongo diren. Hori da normalean helburua, baina aurten gehiago. Bizi dugun egoera ezustekoz bete dago eta.



Ainhoa Martinek sei probatan parte hartu zuen Espainiako txapelketan eta guztietan ondu zuen bere marka. CDN BIDASOA XXI

Egoerari aurre eginez, markak ontzen

Hilabetetako etenaldiaren ostean, Lasarte-Oriako igerilariak uretara egin dute salto eta emaitza ederrak lortu dituzte. Nahiz eta COVID-19aren aurkako neurriek beren jarduna murriztu, markak hobetzea lortu dute hainbat probetan

Txintxarri

Zortzi hilabeteren ostean, lehiara itzuli dira Lasarte-Oriako igerilariak. Neguko Espainiako Txapelketan lehiatu ziren Bidasoa XXI taldeko Martin ahizpak, Castellon. Buruntzaldea IKTko igerilariak, berriz, Irunen kontrol proba izan zuten.

Azaroaren 20tik 22ra, Neguko Espainiako Txapelketan Ainhoa eta Leire Martinek Espainiako onenen artean lehiatu ziren eta, parte hartu zuten proba guztietan euren markaz hobetzeaz gain,

Euskadiko 17 urtez azpiko marka berriak ezarri zituzten.

Ostirala ongi hasi zuen Ainhoak. Nahiz eta podiumera ez igo, bosgarren izan zen 100 m. estilo eta 200 m. bular probetan. Lehen proban gainera, absolutu-gazte mailan bigarren izan zen.

Leirek, berriz, 100 m. bizkar proban parte hartu zuen. Ez zeukan aurreikusia proba horretan lehiatzea. Hala ere, marka ondu zuen. Larunbatean ere fin lehiatu ziren Martin ahizpak.

Leirek 200 m. bizkar proban, Euskadiko marka hiru segundotan hobetu zuen. Ainhoak, aldiz, 100 m. bular eta 50 m. tximeleta probetan.

Eta 400 m. lau estilo proban bi ahizpek hobetu zuten marka. Lehenik probako bigarren seriean, Leirek 4.51,08 minutu behar izan zituen proba burutzeko eta geroago, hirugarrenean, Ainhoak, 4.45,33 egin zituen. Marka horrekin gainera podiumetik ehuneko batzuetara geratu zen Ainhoa, bosgarren.

Azken jardunaldian ere, egoera bera eman zen euren lehiaketari amaiera emango zion 200 m. lau estilo proban. Leirek, lehenik, 2.20,32 minutuan utzi zuen 17 urteko marka eta gerora, Ainhoak 2.16,56ra jaitzi zuen.

Proba hori baino hamabost minutu lehenago, Leirek, 50 m. bizkar proban parte hartu zuen. 29,02 segundo behar izan zituen proba egiteko.

COVID-19aren aurkako neurriak direla eta, erlojupeko moduan jokatu da txapelketa eta proba bakoitzak hiru serie bakarrik izan ditu. Ondorioz, proba bat eta bestearen arteko denbora tartea txikia izan da eta proba ezberdinetan parte hartu behar zuten igerilariak, Martin ahizpek kasu, euren osatze ahalmena erakutsi behar izan dute txapelketan.

"Erantzun ona"

Buruntzaldea IKTko igerilariak ere markak hobetu zituzten Irunen antolatu zen Kontrol Lehiaketan. "Egoera onena ez izanda ere, fin aritu dira gureak eta zenbait marka pertsonal egitea ere lortu dute, uste genuena baino erantzun hobe emanaz", azaldu du Borja Apeztegia Buruntzaldea IKT taldeko prestatzaileak.

Nahiz eta entrenamendu maila baxua izan, igerilariak markak hobetzea lortu dituzte. Eta Apeztegiak nabarmentzen duenez, "azken murrizketek oraindik ere gehiago korapilatu digute egoera. Hala ere, gure igerilariak ahal denarekin ahalik eta onena eman daitekeela erakutsi digute beste behin ere".

Eneko Elizasuk eman zuen ezusteko handiena. Markak hobetzeaz gain, gazteak osatze ahalmen handia erakutsi zuen

proba batetik bestera. Estilo libreko 50 metroko marka pertsonal berria egin zuen, 26,64 segundo; 100 m. librekoan, 56,66an, "aurrekoa ia bi segundotan hobetuz" eta 200 metrokoetan, 2.03,31n geratu zen kronoa. 400 metroko proban ere lehiatu zen eta bere markatik segundo batera geratu zen.

June Lopezek ere hiru marka pertsonal berri zituen, hirurak bizkar estiloan: 50 metroko proban, 36,62; 100 metrokoan, 1.15,99 eta 200 metrokoan, 2.39,73.

Unai G. Somovillak lau estiloetako 100 metro probako marka hobetzea lortu zuen, 1.06,19 eta 100 m. bular proban, bere markatik ehuneko batzuetara geratu zen, 1.12,75. Marka horrekin taldeko 17 urteko errekor berria ezarri zuen. 200 m. lau estiloetan eta 50 m. tximeletan ere lehiatu zen Somovilla eta bietan bere onenetik oso gertu ibili zen.

Aintzane Sarobek 100 m. tximeletako marka pertsonal berria egin zuen kronoa 1.09,43an geratuz; Nora Imazek 100 m. libreko marka berria ezarri zuen, 1.01,33 eta 400 m. eta 800 m. libre probetan ere ez marka ederrak egin zituen. Garazi Etxeberrak ere marka hobetzerik izan zuen. 100 metro lau estiloetako proba 1.17,82an amaitu zuen.

Marka hobekuntzarik lortu ez bazuten ere, Mikel Esnal, Nerea Santos eta Izaro Audikana ere lehian izan ziren eta euren onena eman zuten.

MARTIN AHIZPEK EUREN PROBETAKO EUSKADIKO 17 URTEKO MARKAK HOBETU ZITUZTEN

Arteaga II.a, promozio mailako txapela berriro janzteko prest

Finalurrekoan Salaberria garaitu du, eta, bihar, larunbata, Elordiren aurka jokatuko du finala

Txintxarri

Axier Arteaga lasarteoriatarra promozio buruz buruko txapela bigarren janzteko lehiatuko da bihar, azaroak 28, larunbata, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Elordi izango du aurrez aurre.

Arteaga II.ak finalerdietan 22-15 irabazi dio Salaberriari; lehen atsedena luzearen ostean hautsi du partida Baiko enpresako aurrelariak. Salaberria finago aritu da aurreneko tantoetan, baina bi pilotariak atsedena

hartzera eseri direnean Arteaga II.a zihoan aurretik, 12-11. Kantxara itzultzean, lasarteoriatarak joko-maila ederra erakutsi du eta hautsi egin du partida. Gero eta alde handiagoa hartu du markagailuan, 22. tantora iritsi arte. Hamabost egin ditu Salaberriak.

2017. urtean jantzi zuen txapela estreinakoz, Bakaikoari 22-18 irabazita. Urte bikaina egin zuen herritarrek, hilabete batzuk lehenago Promozio binakakoa irabazi zuelako Erasunekin batera.



Arteaga II.a garaipen bat ospatzen. BAIKO PILOTA

KOMIKIA




ZORION AGURRAK



Josean
ZORIONAK!!! Ez dira egunero 50 urte betetzen eta merezi duzun moduan ospatu behar dugu. Maite zaitugu gaztetxo! Familiaren partetik.



Leire
Zorionak Politta! Hamabi muku erraldoi, eta ondo ondo pasa zure urtebetetzean. Maialen, aiton-amona eta familiaren partetik bihotzez.



Pau
Zorionak eta muku erraldoi bat!!

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 27 GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 28 DE MIGUEL
IGANDEA, 29 DE MIGUEL
ASTELEHENA, 30 DE ORUE
ASTEARTEA, 1 DE MIGUEL
AZTEAZKENA, 2 LASA
OSTEGUNA, 3 GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani / 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

JAIOTAKOAK

Ibai Uhalte Solano. Azaroaren 19an.

HILDAKOAK

Rosa Telleria Berasategi. Azaroaren 22an.
Angela Molina Nevado. Azaroaren 21ean.

SUDOKUA

		9		5	1	6		2
2	6							5
5				3	2	9		4
				1	8	2	9	5
			8	2	9		4	7
9	5						8	3
3		6	5		4			9
		1			6		5	2
8		5	1					

AZOKA TXIKIA

LANA**ESKARIA**

Baratzeko lanak egin edo pertsona helduak zaintzeko prestnago. Harremanetarako zenbakia, 627 20 61 10.

Pertsona helduak zainduko nituzke. Interna moduan edo orduka. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Pertsona helduen zaintzan lan bila nabil. Interna edo orduka izan daiteke. Harremanetarako zenbakia, 666 09 67 61.

Neska euskaldun bat eskaintzen da astean behin eta arnatsaldez ebeko lanak egiteko. Nire telefonoa: 646 48 58 11

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan

edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

ETXEBIZITZAK**EROSI**

Apartamentu biki bat bilatzen ari naiz erosteko, Lasarten. Logela batekin nahiko. Igoigailuarekin. Ez dut nahi atikoa ezta lofta ere ez. Nire telefonoa 660 55 23 53 da.

IKASTAROKAK**ESKARIA**

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta

esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 63 03 13. bentley.ma@gmail.com.

Txokoalden, tren geltoki zaharreen, txalaparta klaseak ematen ditut. tagoredoremi@gmail.com edo 678 07 10 41 (WhatsApp ez).

SALEROSKETA**SALDU**

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazua + paseoa aukia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 82 44 66.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

txintxarri

www.bintxarri.eus**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maidier Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Jose Lanchas, Iñigo Garcia
eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA Antzerkia

Mi 3er acto monologoa eskainiko du Eguzki Zubiak. Sarrera, 5,50 euro. Genero indarkeriaren aurkako egunaren egitarauko ekintza. Manuel Lekuona, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Azaroko azken ostirala izanik, herriko euskal preso enbaxatzearen aldeko mobilizazioa egingo da. Amaieran, Cordoba eta Lannemezango berriak elkarbanatuko dituzte.

Elizate plaza, 20:00etan.

ANDOAIN Ikuskizuna

The Golden Apple Quartet taldeak *Los Xey-omenaldia* ikuskizun berria aurkeztu du. Xabier Zabala musikariak antolatutako ikuskizun berriari, musikari beraren eta Andoingo Udal Musika Bandaren laguntza izango dute taula gainean. Sarrera, 12 euro.

Bastero Kulturgunea, 19:00etan.

DONOSTIA Ikuskizuna

Ane Labaka eta Beatriz Egizabalek *Erradikalak ginen* ikuskizuna



LASARTE-ORIA Musika. COVID-19aren pandemia dela-eta zazpi hilabetez atzeratu da Anne Etchegoyen abeslariaren kontzertua. *Emazte* proiektuan euskal gizartearen emakumeak hartzen duen eta beti hartu izan duen leku nabarmena aldarrikatzen du Donapaleko abeslariak. Horretarako, euskal kantu tradizionalak eta sorkuntza propioak taularatuko ditu abeslariak Les Voix Basque abesbatzak lagunduta. Manuel Lekuona kultur etxea, igandea 29, 19:00etan.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

El año que dejamos de jugar
Larunbata: 19:00.
Igandea: 19:00.
Astelehena: 19:00.

Trolls 2. Gira Mundial
Larunbata: 16:30.
Igandea: 16:30.

HERNANI

BITERI

Hil kanpaiak
Larunbata: 19:00.
Igandea: 19:00.
Astelehena: 16:30.

Onward
Larunbata: 16:00.
Igandea: 16:00.

taularatuko dute. Sarrera mugatua. Izena emateko bi aukera daude: telefonoz, 943 351 149 eta posta elektronikoz, casareskulturetxea@donostia.eus.

Tomasene kultur etxea, 19:00etan.

LARUNBATA 28

USURBIL Solasaldia

Gazte espazioak eta autogestioa solasaldia egingo da. Azarriko Gazte Asanbladak antolatutako ekimena. Askatasuna plaza, 11:00etan.

USURBIL Mobilizazioa

Gazteon bizi proiektuekin zer? lelopean mobilizazioa egingo da. Azarriko Gazte Asanbladak antolatutako ekimena. Askatasuna plaza, 17:30ean.

USURBIL Antzerkia

Euskaraldiko egitarauaren barruan, *Esnatu naiz kabaretaz*, Donostiako Poltsiko Antzerkiko Sorkuntza Deialdian aipamen berezia jasotako ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da. Sarrerak doan banatu

dira usurbilkultura.eus atarian. Suteigiko auditorioa, 19:00etan.

DONOSTIA Ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Maromotsek bere lan berria aurkeztuko dute, *Amaren Intxaurreak*. Sarrerak agortuta. Intxaurrendoko kultur etxea, 16:00etan eta 18:30ean.

URNIETA Antzerkia

Istrión teatroak *Juana Loca* lana eskainiko du. Sarrera, 5 euro. Sarobe Gunea, 19:00etan.

IGANDEA 29

LASARTE-ORIA Musika

Anne Etchegoyen abeslariak *Emazte* emanaldia eskainiko du Les Voix Basque abesbatzak lagunduta. Sarrera, 12 euro. Manuel Lekuona, 19:00etan.

DONOSTIA Dantza

Kukai dantza taldeak Sarrionandiaren *Hnyu illa* liburuan oinarritutako lan berrikusia. Sarrera, 10-24 euro. Victoria Eugenia antzokia, 19:30ean.

Heriotza lantzeko modu alaiak

Lehenengo astean aurkeztu zuten lasarteoriako sudur gorriek euren azken lana: *Amaren Intxaurreak*. Haur eta gaztetxoekin heriotzaren gaia lantzea da pailazoaren azken lanaren helburu nagusia. Marimototsen ama Loretoaren heriotzaren ostean landatutako intxaurrendotik abiatuta oholzaratuko dute ikuskizun berria.

Azaroaren 19an, ostegunarekin, aurkeztu zuten Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Amaren Intxaurreak* azken proiektua. Iruñeko Katakarak aretoan egin zuten lanaren aurkezpena eta Julio Soto bertsolaria eta Maite Mutuberria ilustratzailea izan zituzten ondoan.

Ipuin-diskoa, ipuin animatua, ikuskizuna eta proposamen didaktikoak osatuta dago *Amaren Intxaurreak*. Heriotzaren gaia ardatz hartu, eta horren inguruko lanketa egin nahi dute pailazoek haurrekin, gazteekin, familiekin eta baita hezkuntza komunitatearekin ere. Naturak heriotza

ulertzen lagundu die hirukote lasarteoriatarri, "bizitzaren parte" dela ulertaraziz: "Denak jaiotzen gara eta denak hiltzen gara; bizitzarekin batera doa heriotza eta natural den hori, modu naturalean sentitu, pentsatu eta barneratu behar genuke". Heriotzaren gaiak, ordea, gai-tabua izaten jarraitzen duela nabarmendu dute, eta gaiaren aurrean, pertsonen ahalduntzea ere badu helburu *Amaren Intxaurreak* proiektuak.

Hainbat sortzaileekin elkarlana

Julio Soto bertsolariarekin eta Maite Mutuberria ilustratzailearekin elkarlanean sortu dute proiektua. Sotok esaterako, ipuina idatzi du eta Mutuberriak ilustratu. Diskoan, berri, aurrez argitaratutako hamabost abesti batu zituzte. Xabier Zabala musikariak sortuak dira abestiak eta zenbait sortzailek doinu horiei jarritako hitzez daude osatuak.



Iruñeko Katakarak aretoan aurkeztu dute, 'Amaren Intxaurreak' proiektua. KATXIPORRETA

Ipuin animatua ere badu *Amaren Intxaurreak* lanak eta, dagoeneko, ikusgai jarri dute euren Katxiporreta TB kanalean. Asteburu honetan eskainiko dute proiektu berriaren lehen emanaldia.

Azaroaren 28an izango da, Intxaurrendoko kultur etxean, eta hortik aurrera, Euskal Herriko areto ezberdinetan ere taularatuko dute. Ez dago sarrerarik dagoeneko lehen emanaldi horretarako.



**GABONETAKO zenbaki BEREZIAK
ABENDUAREN 18AN ETA 30EAN**

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

**eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus
943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66**

txintxarri



**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

BLACK FRIDAY

%10eko DESKONTUA

**Argiztapen eta etxetresna txikietan
gaur, ostiralean!**

600 857 586 | www.electricidadarregui.com | Kale Nagusia 39 LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel. 943 37 25 21

**LASARTE-ORIAN
EUSKARALDIA**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra
GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN.

AHOBIZI:

Elkarrizketa elebidunetan, euskaraz: Komunikazioa berrmatuta dagoenetan, eutsi euskarari.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari: Aztertu nola gaingitu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

Eutsi euskarari: **Ekin** (lehen hitza euskaraz), **adierazi** (euskarari eutsiko diozula), **egiaztatu** (solaskideak ulertu dizula), **esan** (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).

AHOBIZI

BELARRIPREST:

Adierazi euskararekiko prestutasuna: Jakinarazi solaskideei euskara jaso nahi duzula eta, zeuk ere nahi eta ahal beste erabili. Zure euskara da euskararik onena.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari: Aztertu nola gaingitu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.

Egin lekua euskarari: **Adierazi** (euskara ulertzen duzula eta jaso nahi duzula), **ekin** (ahal eta nahi duzunean euskaraz hitz egin), **jakinarazi** (ulertzeko zailtasunak dituzunean, beste modu batean esateko eskatu).

www.euskaraldia.eus